

Orain arte puntuz puntu joan gara koplak eta bertsoak sortzen. Oraingoan, **lehenik azken puntua pentsatzen** ikasiko dugu, eta gero, azken mezu horretarantz emango ditugu gure pausoak.

Koplak eta bertsoak sortzeko **prozesu honi atzekoz aurrerako teknika** esaten zaio.

Zergatik pentsatu lehenik azken puntua

Ziurtatzeko **amaiera biribila** izango duela koplak/bertsoak. Eta hasieratik jakiteko gure **mezua norantz** bideratu nahi dugun, zein helmugatara. Gainerako esaldiak **antolatzen** ere lagunduko digu, **koherentzia** emanez diskutso osoari.

1 **Azken puntua** pentsatuko dugu, nora heldu nahi dugun. **Errekaren bestaldera** iritsi behar dugu!


2 **Oinak** edo errimatzen duten hitzak **batuko** ditugu. **Errekan harriak** jartzea bezala, pausoa bertara emateko.

3 Oinak nahi bezala **ordenatuko** ditugu, mezua argiago azaltzeko.


4 **Oin bakoitzarekin puntu bat** osatuko dugu. **Erreka zeharkatuko** dugu, oinez oin, harriz harri, **hasieratik amaierara.**



ibaiak eramango
gaitu **helmugara**




bagara




puntuz puntu doinuan
murgiltzen **bagara**

oinetara



arreta jar dezagun
beti **oinetara**

Zirrara



Kantuan hasi gara
nolako **zirrara**

